

Ze barri?

1999
OTSAILA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

28 zkia.

Urratik Landetara

Elkarizketa:
Liburutegiko arduradunari

Zabalik:
Santageda mutilak direla eta

Ganuzako etxea Gizabidek
erosi du

**Eskoriatza,
Adi! obra zonaldea**



LAGUN-ARO ASEGURUAK

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA**

ALDETEC



-----**TASAZIOAK**
-----**PERITAZIOAK**
-----**PROIEKTU ING.**
-----**OBRA ZUZENDARITZAK**
-----**ERREFORMAK**

Gastañadui, 7

20540 **ESKORATZA**

Tel.:908-774133 Tel.-Fax 715436 **20540 **ESKORATZA****

Gastañadui, 7 - bajo

Argitaralpen honen ediziozko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora



*fundazioa
fundación*

BERALAN



- ◆ **Komunerako altzari eta manparak**
- ◆ **Ispiludun armairu aurrealdeak**
- ◆ **Beirate artistikoak**
- ◆ **Salarako mahaia**

KRISTALDEGIA

Herriko plaza ☐ 943 79 81 78
ARETXABAETA



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

**AZKOAGA
ESTANKOA**

Zure zerbitzura

**G
A
M
M
A**

BETIRAKO DEPILAZIO ELEKTRIKOA
EEBB ko sendagile elkarteak onartutako
metodo bakarra
KONTSULTA DOHAIN

Maalako Errebala 17 1º A **ARRASATE**
Tfnoa 943 795125



Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

ALDATZ Taberna

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

**Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.**

**Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuen.**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

BENTA-MOTZ

Gastañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.



JANARI DENDA

Hidalga, 8
Tfnoa: 943 71 45 42



ALTUNA

Harategia

Etxean hazitako okela

San Pedro, 3 • Tf. 943 714104
HARATEGIA • Tf. 943 714464

**HEMEN ZURE KOLORETAKO
PUBLIZITATEA**

SANTA AGEDA MUTILAK ETA BESTE ABAR LUZE BATZUK

Oingo hilién, urtero letxe fetxa hontan, Santa Ageda mutilen jaixa pasau da, eta aurten be, zeresan ugeri emun daue kinttuok. Hona hemen jentien agotik beti entzuten dien komentaixo batzuk gaur gogora ekarri eta hausnartu gure nittukienak ein:

".....Ze fetxatan hasteittupa oin?..." Bai, egixa da, idako urtiokaz lhenau hasten die, kandolaixa inguruén, eta jaixa halik eta gehixen luzeketan daue. Hori entendiru leikien gauzia da, atzen batien gaztiak die, eta gainera, geruau ta gutxiau izenda, denpora gehixau biheko daue Eskoitza errekorrituteko. Horraino konforme egon geikez, txarrena da auzoik auzo fan ezkerro, beti topetan dala baserrien bat fan eztiéna ero kantau ezтана etab. Gainera, gure nauke jakin aurtenguak, esate baterako, Geilara fan dien, sortu dana eta gero, aber faten atrebiru dien eta zelan hartittuen, horrek bere morbuá euki leike eta.

".....Oingo gaztiak insumisuak ezttupa, eta Santa Ageda mutil?..." Nik pentsetan dot hemen gauza biren diferentzia ein bihedala. Alde batetik, oingo gazte danak eztié, zorionez ero zoritxarrez, insumisuak. Eta gainera, insumisinuen alde egotiak eztkar berez Santa Ageda mutil ez urten hal izetia. Horreik bardinketaittuenak eztauko ideaik bere herriko jaixen ohitturiáz ezta honen esanguriáz be. Santa Ageda mutilak, ero Santa honen izenien koplak kantetan urtetia Euskal Herriko parte askotan gordeten dan ohitturia da, eta zelabaitt Karnabala anunziétara datoz. Oin ehun ta hogetabost urte, hemengo mutilak derrigorrez soldauzkoa eitten hasi biher izen zienien orduko Erregien ejerzittuen, bertara fan biher euien mutilen despedida moruen ero hartzen hasi zan. Eta gure egunetara hola ailegau izenak eztau esan gura hori danik bere benetazko zentzuna. Edarra kontua, según ideolojixak, jentia herriko jai eta ohitturetatik bazterketan hasiko bagitz, ez?

".....mutilak baino eztaue parte hartzen, eta guk zeatik ez?...." Ba bai, egixa da, eta hori epe motzien akabau biheko dan zerbaitt da. Aurreko parrafuen esategauen moruen, jaixak jarein ein eztauen izekeria

dauko ondio, hau da, soldauzkara doiezenen despedida moruen, baina soldautzia lhenbailhen akabetara baldin badoia, jaixa behintzet eztau galdu biheko eta partizipazinuen nesken parte aktibua kontutan hartu biheko dan gauzia da, normala ez?

".....moxkorra hartzeko baino eztau balixo horrek jaixorrek....." Bai, egixa da, baina baitta San Pedruak, San Ferminak, Blankak, ero erozein zapatupe. Eta hori ikusitta, zer ein bihou? Gure nortasunen parte bat dien jaixak erdittik kendu? Jai danak, historixa guztien ziher, jentia sozializetako balixo izen daue, baitta holako gauzen kontra, batzuk ondio goguen daukutzuen errepresino epoka haundixenak izen zienien be. Eta gauzak eztié hainbeste aldatu, atzen batien, danok izen garelako eta garelako bastante balientiauak normalien eitten atrebiruten ez garen gauzakin kopa bi gainien daukounien eztaukonien baino.

Moxkorra =bandalismua?

Ez. Egixa bada be gauza batzuetarako balientiauak garelá, horrek eztau justifiketan aurten ein ei dien kontu grabiak. Eta amorrúa emuten dust hau eskribiru biherrak, urtero egoten dielako Santa Ageda mutilen kontra kargetan dauienak, baina txarrena da aurtengo honeik akontezimentuok errezoia emuteutsiela, eta ja ezinddoula defendirú askotan esan izen dienak betiko argumentuakin, oinguen pasau dana indefendiblia dalako.

Honeik gauzok ekarten dauiena da datorren urtekuak aurten einddienak superau bihera, rekord barri baten bila ibilttia, inor ezinddalako aurrekua izen dana baino gutxiau izen, eta bide hortatik jaixen degradazinora eta galerara goiez, eta hori ez ta komenigarrixa ezela bez gure herrixen nortasunen parte bat dan negu parteko jai sustartuenendako.

D.M.III.na.



ZE BARRI?

Argitaratzailea: AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Iñigo Biain, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez.

Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Aitor Urrutia, Asier Errasti.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.000 ale Lege gordailua: SS - 200/99

"ZE BARRI?" aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"



Eskoriatzako Udalak diruz
lagundutako aldizkaria
Euskara Batzordea



ESKORIATZA, ORLEGIAGO

UDAL KONTUEK BADUTE BESTE ITXURARIK ditxosozko obrez aparte ere. Albiste politik gainera, naturzaleentzat batipat.

Izan ere, gure herriko Ingurugiro Batzordearen lanaren frutu, Eskoriatzako mendirik maiteena eta herri inguru bera ere biziago egongo bait da laister.

Herri inguruak zuhaitzez landatzez arduratuko direnak, ALMEN Ikastola eta Luis Eceiza Ikastetxeko haurrak izango dira, larunbat hontan, hilak 27an, ZUHAITZ EGUNA ospatuko bait dute. Udalak erosi ditu jada landatuko diren 30 pago eta

haritzak, eta Zerbitzuetako langileekin batera, Eskoriatza inguruan landatuko dituzte gaztetxoek.

Hala ere, destakatzeko modukoa da Aitzorrotzen egin nahi dena. Udalaren jabegopera pasa ondoren, eta hasierako oztopoak gaindituta, iturri bat, askatzea eta harrizko mahai gisan, harrizko harlauza haundi bi jarri ziren orain urte batzuek. Azken hilabete hauetan baina, haitzen ingurutik hasi eta bidean aurrera doan lursaileko sasi eta piñu sustraiak kendu, eta berriz ere landatua izateko prestatu da lurra. Aldizkari hau irten orduko, langileak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin batera erositako 2800 zuhaixkak landatzen hasita egongo dira. Hauetatik 750 pagoak izanen dira, eta hainbat motatako zuhaitzak besteak, 21.000m²ko lursailean banatuta. Iturri berriaren inguruan dagoen pagaditxo haunditu asmoz, pago gehienak (500 bat) mendian gora jarraituz landatuko dira. Beste motatakoak elkarrekin tartekatuta landatuko dira gero, espezie ezberdinak nahastuz, askok aspalditik Aitzorrotzen ikustea nahi genuen basoa osatzeko. Gai honi buruzko informazio gehiago, Martxoko ZE BARRIn!

OHIKO BILKURA UDALETXEAN

Pasa den Otsailaren 16an, Eskoriatzako Udaltzako Ohiko Bilkura ospatu zuen, besteak beste, Hirigintza arloko hainbat gairi adostasuna eman eta dagokien prozesuekin jarraitzeko. Datozen hiru urteotan Eskoriatzak izango dituen Planeamendurako Arau Subsidiarioak onartzeko aurrerapauso bat eman zen. Arau Subsidiarioek, Urbanistikoki herriak izango duen lurzoru banaketa eta azterketa zehazten du, leku bakoitza industriarako gune, etxebizitza zonalde edo zonalde berde izendatzeko. Aurreko Ohiko Bilkuran, "Arau Subsidiarioen berrikuspen dokumentua egiten bukatzeko finkatu beharreko irizpide eta irtenbide orokorrak" onartu ziren, beraz, asko gelditzen da oraindik gai honi behin betiko onarpena emateko.

Alor berean, San Juan kaleko 4 eta 6garren eraikinak bota eta bertan etxebizitzak egiten hasi ahal izateko egin beharrekoekin jarraituz, aspalditik utzita dauden etxe hauei hondamen izendapena ematea onartu zen.

Hartutako erabakirik garrantzitsuenetako bat datozen hiru urteotan Eskoriatzako kale garbitasuna, eraikuntza publikoen garbitasuna, eta parke eta lorategien mantenuaren ardura izango duen enpresa izendatzea izan zen. Azken bi urte t'erdi hauetan, Markinako "Txika eta Atxurra" enpresa eta "Zuri Garbiketak" enpresa izan dira hortan aritu direnak. Dirutza handia da Udalak gai hau bideratzeko ematen duena, eta sei enpresa ezberdin aurkeztu ziren izendapena lortu asmoz; bideratutako dirua berriz, 27 milioi pezetatik gorakoa da kale garbiketarako, 35 milioi baina gehiago eraikin publikoen garbitasunerako, eta zonalde berdeak zaintzeko berriz, ia 21 milioi pezetakoa, hiru urteko epe horretan. Horrela bada, aurkeztutako seietatik, **GMSM Medio Ambiente enpresa izango da datozen hiru urteotan Eskoriatzako kaleak garbituko dituen, eta URBASER enpresa berriz, herriko zonalde berdeak zaindu eta eraikin ofizialen mantenuaz arduratuko dena.**

HERRIARI GUTUNA

Beste alor batetara pasatuaz, Eskoriatzako Udaltzako, aurtengo **Santa Ageda bezpera eta egunean** eta kintoak kalera irten ziren egunetan gertatutako gorabeherei buruzko idatzi bat onartu eta herriko etxe guztietan banatzea erabaki zuen. Idatzi horretan, "*Santa Ageda eguneko ohituraren aitzakian ekintza bandalikoak burutu*" izana leporatzen die Udaltzako aurtengo kintoei; "*Udalbatza honek, erabat gaitzesten du aurtengo Santa Ageda mutilek egindako ekintzak, esate baterako goizaldean "elementu piroteknikoekin" herria girotu izana eta ordena publikoa asaldatuaz eskoriatzarrok gogaitu izana, nahiz eta itxafleroak botatzeko egun eta orduei buruzko arauak eman zizkien udal honek.*" dio jarraian.

Idatzi berean, baita, kintoak kalean triskantzak egiten zebiltzan bitartean laguntza eskatu zitzaion **Ertzaintzak "agertutako profesionaltasun eza"** azpimarratu nahi izan da. Jasandako kalteak salatzeke Otsailaren 5ean Udaletxera hurbildu ziren herritarrei erantzunik egokiena eman ahal izateko, Ertzaintzaren laguntza eskatu zuen Udalak, baina "*Denuntziatu dituen ekintzen egileei kontuak hartzeko euskal polizia edo haien gainetik dagoen nagusiak adierazitako gaitasun eza, arduragabekeria eta utzikeria erabatekoa*" izan da Udaltzaren ustez. Hori salatuz, Arrasateko Ertzaintzaren komisaldegira protesta idatzi bat bidaltzea erabaki zen baita.

"*Horiek horrela, ohitura "desnaturalizatu" izanak arduratzen eta penatzen gaitu eta Santa Ageda mutil izatea merezi ez duten horiek identifikatzeko guztion laguntza*" eskatuz amaitzen da onartutako eta herriko etxe guztietara bidalitako idatzia.

GIZABIDEK GANUZA ETXEA EROSI DU

GIZABIDEk (kooperatiba elkarteek hezkuntzaren beharrei erantzuteko sortutako fundazioak) erosi du Ganuza Etxea azkenean. Behin etxea eraberritu ondoren, Eskoriatzako eraikin zoragarri hau Jose Arana Almen ikastolaren egoitza izango da. Bertan, egun haurren ikastolak eskaintzen duen 2-6 urte arteko heziketaz gain, 0-2 urtekoentzat haurtzaindegia jartzeko asmoa ere badaukate. Haurtzaindegiaren proiektu hau duela hiru urte planteatu zuten Arana Almen ikastolakoek, baina proiektua aurrera eramateko orduan ez zeukaten egoitza egokirik. Baina, azkenean, GIZABIDE fundazioaren bitartez Ganuza etxea eskura izango du ikastolak Eskoriatzan haurtzaindegia ipintzeko.

Dagoeneko Almen ikastola hasi da mugitzen eta, behin etxea eraberritzeko proiektu egokiena erabakitakoan birmoldaketa lanek ekingo zaie. Etxearen egoera eskasa kontutan izanik, birmoldaketa lanok profesionalek aurrera eramango badituzte ere, guraso taldeak eta



eskoriatzarrek ere, beren neurrian bada ere, etxea txukun jartzen lagunduko dute. Horrela, eta dituzten aurreikuspenak betetzen baldin badira, Jose Arana Almen ikastolak Ganuzako ateak irekiz ekingo dio 2001. urteko ikasturtari.

Herritar askok berri hau pozez hartu dugu. Ganuza jauregia, Eskoriatzan dagoen ondare historiko ederrenetakoa, horrela, dagoen egoera eskasean ikusteak, pena ematen zigun eta. Desiatzen geunden norbaitek hura noiz erosiko. Azkenean, ordea, heldu da desiatutako egun hori eta gainera, aurki eskoriatzarrentzat zerbitzu egoki bat eskeiniko da eraikin

dotore honetan. Azpimarratu behar da baita ere, Almen ikastolaren asmoa etxearen zati bat herriaren erabilpenerako izatea dela. Horrela, Ganuza jauregian dauden pinturak, apaingarriak, haltzari dotoreak... gela batzuetan bilduz herriaren bultzatzen diren beste ekimen batzuk ere bideratzeko prestatuko dituzte, hala nola: hitzaldiak emateko, kurtsiloak, konferentziak...

Almen ikastolak martxan jarriko duen haurtzaindegi horretan umeak sehaskan bezain gustora egongo dira, baina, bestalde, herriari Ganuzako ateak zabalduz, ondare historiko hau "herriaren etxea" izatea ere lortu nahi dute.

ELURRA BERRIRO ERE



Marisatik Arlaban aldera elurra kentzeko makinapasatzen.

Aurten bigarren aldiz, elurrak bixita egin zuen gure bailarara, eta Otsailaren 10eko goizaldean batez ere, eragozpen larriak sortu zituen herri inguruko errepideetan. Hurrengo egunean ere, elurra kentzeko palak jo eta ke aritu ziren Arlaban eta Gatzagako portuetan gora eta behera.

Temperatura oso hotzak izan genituen gainera hurrengo egunetan, eta herriaren denbora gutxiz izan bagenuen ere, mendi aldean egun askoz egon zen txuri-txuri. Aukera polita duda barik, mendizale, mendiko eskiatzaile eta plastikoetan eta elur pilotak botatzen jolastea gustatzen zaien gaztetxoentzat. Eta lasai oraindik, Martxoa hasi besterik ez da egin eta!

Olga Jauregi:
Liburutegiko arduraduna

1.- Zenbat denbora daramazu Eskoriatzako liburutegian?

98ko azarotik.

2.- Aurretik antzeko lanetan aritu al zara?

Bai, Arrasaten eta Aramaion.

3.- Eskoriatzako liburutegia kontsultarako aproposa al da, jendeak erraz aurkitzen al ditu behar dituen liburu eta datuak?

Bai, txikia denez (txikiegia) ez dago arazo handirik gauzak aurkitzeko.

4.- Nola ikusten duzu irakur zaletasuna eskoriatzarren artean, zein adinetako jendeak du zaletasun gehien?

Gehien etortzen dena gazte jendea, asko etxekolanak egitera. Bestalde, 30-40-eko laguneko kopuru finko bat hilero etortzen da liburuak hartzera eta irakasle eskolakoak ere dexente etortzen dira lanak egitera eta.

5.- Zer irakurtzen da gehiago euskaraz ala gaztelaniazko liburuak?

Gazteleraz, gehiago dagoelako ere bai.

6.- Inoiz libururen bat idaztera ausartzekotan norentzat egingo zenuke?(haurrentzat, gazteentzat, helduentzat)

Uste dut ez naizela saiatu ere egingo. Askotan uste dut umeentzat idaztea zailago izango dela.

7.- Zein beste zaletasun daukazu irakurtzeaz aparte?


Paseatzea, mendira joatea, lagunekin egotea...

8.- ZE BARRI? aldizkaria ezagutuko duzu, zer nabaritzen duzu faltan gure aldizkari honetan?

Oraindik ez dut asko irakurri egia esan.

9.- Ze behar ikusten duzu Eskoriatzako liburutegian?

Leku falta. Haur eta gazteen gunek eta nagusienak bereizteko adibidez.



IHAUTERI POBREA K
AURTEN

Hotza izan dugu protagonista duda barik aurtengo Inauterietan. Ez temperatura ezta giroa ere ez ziren batere epelak izan, eta jende oso gutxi animatu zen mozorroz janztera.

Aurten bigarren aldiz, larunbata izan zen egun nagusia Eskoriatzako Haratuzteetan; mozorro lehiaketa izan zen arratsaldean, eta "Gaubela" taldeak jarri zuen musika gauean, baina giroa etzen igazko bera izan. Itxura denez, jendeak nahiago izan zuen etxeko epelean gelditu, edo Arrasate edo inguruko beste herriren batera mugitzea, jaia etxean egitea baino.

Mozorro Lehiaketan ere, inoiz baino partehartzaile gutxiagok eman zuen izena, hiru koadrilak taldekako

sarirako, eta bi pertsonak bakarkako sarirako. Hala ere, partehartzaile gutxi egon arren, disfraz politikak ikusi ziren, begiratu bestela irabazleek zeramaten piura! Itxura beldurgarri hori eramateagatik, 25.000 pezetako saria eskuratu zuten Arrese, Otamendi eta konpainiak. Banakako mozorro saria berriz, "Eskoriatzako Heroia Ziberrerrobota" k eraman zuen. Ez dakigu kintoek eragindako triskantzak konpontzeko asmotan edo, baina gau osoan tabernatetik bueltaka aritu zen gure "Robocop" hau.




Argazkia pasa den urtekoa da

Martitzenean lanbroak hartu zion erreleboa hotzari, eta horren ondorioz, Bandaren kalejira bertan behera gelditu zen, eta partehartzea ere oso txikia izan zen. Arratsaldean ume dexente irten zen kukumarroaren aurretik korrika ibili edo beraientzako bereziki prestatu ziren ikuskizunez gozatzeko, baina jai giroa ez zen beste urteetako bera izan. Inauteri triste xamarrak, beraz, 99ko hauek!

ESKORIATZA ADI! OBRA ZONALDEA

"Das Leben ist eine Bauerstelle!" edo "Bizitza obratan dagoen zonalde bat da" orain gutxi estreinatu berri den filme alemaniar bat da. Filme honetan, bizitza nahiko nahasia duen protagonista, Berlingo Postdamer Platz-en galduta ageri da behin eta berriz, kamioi, garabia, langile eta zarataren artean. Postdamer Platz Europa osoan dagoen obra zonalderik handiena da, eta Mendebalde eta Ekialdea banatzen zituen lekuan, kristal eta zementuzko erraldoiak eraikiko dira laister, urte luzetako lanen ondoren. Eskoriatza ez da Berlin, eta Aranburuzabala kalea ez da Postdamer Platz, baina azken hilabeteotan gure herrian egiten ari diren lanak, gehiegi irauten dutela, eta filmeko protagonista bezela herritar guztiok eretzeko zorian jartzen ari direla, hori ziurra da. Behin eta berriz izan ditugu aipagai lan hauek gure hilabetekarian, baina derrigorrezko gaia dugu berriz, kalera irten eta beraiek baitira protagonista.



Herri osoa hankaz gora jarri zuen lehenengo lan handia Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ur Kontsortzioak bultzatutako kolektorearen obra izan zen. Joan zen urteko maiatzean hasi ziren lan hauek, eta beraien helburua orain artean Deba ibaira botatzen ziren ur zikinak jaso eta San Prudentzian egingo den depuradorara bideratzea da. Lan hauek bukatzeaz daude oraindik, baina herrian eman dituen buruhausteak ez dira nolanhikoak izan. Bide

Ganuz a etxe ko inguru a da oraindik kolektoreak egiteko lanak bukatzeaz dauden zonatako bat. Hori gutxi eza balitz, ondoko etxebizitza batzuetan ere, berritze lanak hasi dira. Almen ikastolak etxea erosi eta bertan haurtzaindegia egitea nahi denez, luzaroan izango ditugu bertan kamioi, langile eta zarata.



mozketak, eragozpen ugari eta Eskoriatza "atrinxeratu" bat utzi zizkiguten denbora askoan. Erdialdeko eginbeharrak egin eta gero, oraindik bukatzeaz daude obrak herriko hainbat puntutan. Eskoriatzan letxe, Aretxabaleta, Arrasate eta beste hainbat tokitan antzeko azpiegiturak egiten ari dira.

Kolektorea egiteko lanak bukatu eta berehala, Udalak guztiz txikituta gelditu zen Erdialdea Urbanizatzeko lanak hasi zituen,



Aranburuzabala eta Arana kaleetako espaloi, pabimentazio eta zerbitzu hoditeriak berritzu asmoz.

Ehun miloi pezeta inguruko aurrekontua dute lan hauek, eta maitatza



alderako bukatuta egongo direla aurriztuz da. Apurka-apurka forma hartuz doaz berriz gure herriko kaleak, baina asko dago oraindik egiteko!

Susto galanta hartu zuten Arzaburutarrenean joan zen hilaren bukaeran! Abixatu gabe, Kultur Etxe ondoan dauden etxeetako atzekaldeko horma bat, Bolibar errekaaren kontra eraikitakoa, goitik behera erori zen. Horma zaharkitua zegoen itxura denez, eta orain urte batzuk Museo Eskolak ibaiaren bidea aldatu zuelata (orain dagoen zubia egiteko, besteak beste) urak horma azpikaldetik jan eta lurjauzi bat eragin zuen. Eusko Jaurlaritzak bost miloi pezetako dirulaguntza eman ondoren, berehala hasi ziren lanak bertan eta bukatzeaz daude jada.

Ondorioak: Olazar kaletik desbideratuta dagoen zirkulazioan eragozpenak, eta inguru guztia, txikituta.

Mondragon unibertsitateak prest nahi du bere fakultate berria datorren ikasturterako, eta hori dela eta



Ezkerraldean, goian: Arzaburutarren etxe osteko orma erori Bolibar erreka estali zen.

Goian: Herriko jubilatuek injeneruak dirudite plazako obrei begira, ez da entretimentu makala izan ere.

Ezkerraldean, behean: Eskoriatzarentzat primizia bat, zaharren egoitza aurrean semoaforoa jarri dute trafiko arazoak ekiditeko. arazoak ekiditeko

Erdialdean egiten ari diren lanak "laster" bukatuko diren arren, Eskoriatzako obrak ez dira hor amaituko: Ganuza etxea, San Viator, etxebizitza gehiago.... eta kanpoaldean berriz, autopista, parke eolikoa, AHT-a... burrundarak luzaroan jarraituko du.

jo eta ke ari dira langileak Viatortarren komentu izandakoan. Etxea goitik behera aldatu beharko da bertan ikasgela, bulego eta beste egin ahal izateko, eta gainera, Irakasle Eskola eta egoitza berria elkartzuz, zubi bat eraikiko da Deba erreka gainetik.

Haseran ospitale eta gero komentu izandakoan, bere egoitza nagusia jarri nahi du Mondragon Unibertsitateak, eta bertan emango dira besteak beste,



Eskumaldean baina goian: Non daude San Viatorreko jardin eta iturria?

Goikaldean:

Kampus dotorea egingo dute Eskoriatzan zubi eta guzti.

Eskuman:

Eskabadoreen presentziak jarraituko du.



Humanitate eta Enpresa ikasketak. Aspaldian bezela, jendez gainezka egongo da laister San Viatorreko Etxea.



INTSUMISIOA

Intsumisioa soldaduzka eta derrigorrezko zerbitzu soziala egiteari uko egitea da, soldaduzkaren desagerpena lortzeko borroka kolektiboa da gizarte desmilitarizatu, baketsu, solidario eta justuago bat lortzeko helburuarekin.

Gazte batek soldaduzkari uko egin eta intsumiso izateko lehenik zozketatua izan behar du. Zozketaren ondoren gazteari dokumentazio bat helduko zaio: bertan soldaduzka non bete beharko duen zehazten da (eguna, ordua, herrialdea eta koartela) bidairako tiket batekin batera.

Intsumiso izan nahi duen gazteak dokumentazio guzti hau itzuli beharko du. Horretarako intsumisio aldarrikapen bat betetzen da, eta aurreko dokumentoekin batera, postaz bidaltzen da bakoitzearen herrialdeko "centro provincial de reclutamiento" delakora. Ondoren, ez gara koartelean agertuko.

Objetore izanda ere intsumiso bilakatu daiteke gazte bat. Horretarako, inkorporaziorako paperak prestazioa egiteko egokitu zaion lekura itzuli behar ditu postaz.

Intsumiso egiteko pausoa eman baino lehen komenigarria da norbere herriko talde antimilitaristarekin kontaktuan jartzea.

Lehen intsumisoei 2 urte eta 4 hilabetetako gartzela zigorra ezartzen zieten, baina kode penal berria martxan jarri ondoren intsumiso egiten direnak ez dute gartzelara joan beharko, 2 urte baino gutxiagoko kondenak (antezedente edo aurrerakin penalak ez dituzten kasuetan) ez dira betetzen eta.

Gaur egun (1998ren urritik aurrera) intsumisoei ezartzen zaizkien zigorrak 4 urteko inhabilitazioan oinarritzen dira, gartzela zigorra eta isuna desagertzen direlarik. Inhabilitazioaren ondorioz, gazteak ezin izango du administrazioan lanik egin denbora horretan, ez eta beka edo dirulaguntzarik jaso.

Inhabilitazioaren aurka eta intsumisioaren alde alderdi politiko, sindikatu eta talde asko elkartu dira. Euskalherriko 50 udaletxe baino gehiago inhabilitazioak ez onartzeko konpromizua hartu dute. Eusko jaurlaritzan ere inhabilitazioak ez direla kontutan edukiko esan dute arduran politiko batzu.



Bazkariko irudiak



IV. INTSUMISO EGUNA



Sukaldariak Egokiena elkartearen babak prestatzen



Intsumisio partaideek gustura jan zituzten babak



Batzuk plater bat baino gehiago jan zituzten



Antolatzaile batzuk tresnak jaso ondoren



Komando Harrikara Naira tabernan. Bigarren aldiz etorri dira Eskoriatzara, Arrasatetik Garagartzara rock gogorrena. Bere lehen maketa atera nahiez dabil.



Atzantatu Cipris tabernan. Zumaiakoak dira, bere lehen maketa atara dute eta gogor ari dira jotzen.



Dama Baltza La Cafe tabernan. Hamlet estiloko musika jotzen dute eta haren bertsio bat eskaini ziguten, ezin hobea.



Gauean ,manifestazioa egon zen

**Butaneruekin laster lortuko al da konponbiderik?
Beldur al zara butano gabe geratuko ote zaren?**




Mª Jesus Osinaga.

Butanua hain da gauza beharrezkoa, uste dut laster lortuko dutela ados jartzea.



Teresa Reyes Gomez

Ui, esperientzia haundia dut nik holako kontuetan!. Jendea asko kexatzen ari da eta espero dut laster etorriko direla. Guk kalefazinua bonbonekin daukagu eta jada ondarretan dago, bukatzen bada zer egingo dugu?




Benedito Elkorobarrutia

Momentuz ez daukat grebaren beldurrik, egurra badaukagu behintzat eta!. Dena dela, soluzinoren bat topau beharko daue, denak ezin daue butano barik geratu eta.



Andrea Rodriguez Arias

Guk gasa daukagu baina butanoa daukaten koittaupek zer egin behar dute? Konponbide bat laster lortu beharko da.



Miguel Esnal.

Guk etxean butanua daukagu baina momentuz ez dugu arazorik izan. Gai hori nola doan? Ba, ez nago oso enteratuta.



Arantxa Larrañaga.

Ez dot uste butano gabe geratuko naizenik, oso beharrezkoa da eta zerbait pentsau beharko daue, jendia ezin da butano gabe utzi. Dana dala, bonbonak zainketan nabil bada ez bada be.



Eusebio eta Julian Osa.

E- Nik gasa dut beraz ez dut arazorik. Baina butanoa duen jendearentzat hau desastre bat da.

J- Nik butanoa daukat eta aurreko baten butano eskean joan behar izan nuen almazen batera. Mesede bat eginez utzi zidaten bonbona bat, baina, garbi esanda, horrela ibiltzeak gogaitu egiten zaitu!

SANTAGEDA MUTILAK DIRELA ETA...

Aurten be, urtero lez, aintzinako ohiturari jarraituz, gure herriko **SANTAGEDA MUTILAK** (kinttoak) Agate Donearen egunarekin batera, kalean izan ditugu giroa alaitzen (batzuen ustez giroa "berotzen"). Hori dela eta, izan ditudan hainbat pentsamendu, burutazio etab. jakinarazi nahi nizkizueke.

Lehenik eta behin esan behar dotzuet ni neu be, neure garaian, kintto izan nintzela.

- ZER DA KINTTO IZATEA ?

Denok dakigun bezala, soldaduzkara joateko zozketa egiten du **ESTATU ESPAINIARRAK**, eta urte horretan zozketan "parte hartzen" duten mutilak dira **KINTTO**.

Salbuespenak badaude: ikasketak direla eta prorroga izan dutenak ere zozketan sartzen dira (edo sartzen

ziren), baina mutil horiek ez dira urte horretako kinttoak.

INTSUMISIOAREN gaiarekin ez naiz sartuko. Hori beste baterako izan daiteke.

- OHITURA

Nik entzun edo ikusitakoaz, **KINTTOEK**, soldaduzkara joan aurretik, kaleko giroa alaituz, beraien kantuz eta dantzez, dirua bildu eta parranda polit bat egiten dute. Horretarako egunak hauek dira:

- Otsailak 4 - Santa Ageda bezpera
- Otsailak 5 - Santa Ageda eguna
- Santa Ageda egunaren osteko lehen domeka.

Egun bakoitzean bere eginbeharra dago:

- **BEZPERA**: Eskoriatzako elizateetako baserrietatik pasa, abestuz eta saria jasoz (arrautza, txorixo, dirua...)

- **SANTA AGEDA EGUNA**: Herriko etxe, lantegi, denda, eskolak... girotu abestuz eta saria jaso. Arratsaldean zaharren egoitzan eta plazan aureskua dantzatu.

- **DOMEKA**: Gatzagara bisita goizean.

Eguerdian mezetara

Bazkal ostean berriz

ere aureskua.

- ERROPAK

Alkandora zuria, praka zuriak, alpagata zuriak zinta gorriekin, gerriko gorria, txapela gorria eta lepoan pañuelua. Kintto zaharrenak eta gazteenak gerriko eta txapel beltza erabiltzen dute.

Eguraldia dela eta jertsea ere erabiltzen da.

Hiruzpalau urtetik honuntza kinttoek "ohitura berezi batzuk" hartu dituzte:

- **BEZPERAREN BEZPERAN**, hau da otsailaren 3an, kaleratzen dira. Zergatik? Egia esan ez dakit, baina suposatzen dut esango dutela baserriak batzeko kotxerik ez dutenez, denbora gehiago behar dutela hori egiteko. Beste leku batzuetan (Aretxabaletan esaterako) betidanik egin dira oinez, eta hemen ere egin daitekeela uste dut.

- Jazkeraren kontuan ere badut kritikarik egiteko

- Azkeneko urte hauetan, iruditu zait zuriz jantzita joan direla baserrietara, baina ez da zuriz joaten.

- Jertsea gorria jazten dute (Ertzain koadrila dirudite). Lehen ez zen horrela izaten, norberak nahi zuen kolorea erabiltzen zuen.

- Pañueluari buruz ere, beste horrenbeste esan dezaket. Lehen handiak eta koloretsuak erabiltzen ziren (normalean amari harrapatutakoak), orain aldiz, gorria (San Ferminak?). Edozein modutan "la ostia" dana, niretzat, oinetakoena da. Orain erabiltzen dituzten "zapatila zuriak" zuriak al dira? Denok ezagutzen ditugun marka eta koloretakoak dira. Zapatila guztiz zuria izan ezker, agian onartuko nuke, baina "saskibaloilarien" horiek ez. Inolaz ere ez.

Eta bukatzeko, uste dut luzetxo joan naizela eta, etxaflero eta beste ekintza batzuk.

Nik ez dut esaten etxaflerorik bota behar ez denik, baina normalean etxafleroak gorutza botatzeko dira. Bai, noizbehinka tarrasean edo paperontzira ere bota daitezke, baina tamaino baten eta inguruan jenderik ez dagoenean, arriskutsuak baitira (etxafleroak, ez jendea. Bueno batzuk

bai), eta ez aurten bezala, gehienak lurrera,

kontzejupera, kanaloietara etab. Badirudi, orain, aurreko urteko kinttoek egin zituzten ekintzak txiki utzi behar ditugula, eta handiagoak egin. Hori ez da kintto izatea.

Laburbilduz, kintto asunto hau "desmadratu" egin da. Bestela:

- Non dago plazan zegoen **BAI EUSKARARI** pankarta ?
- Zenbat kanaloï apurtu dituzue aurten ?
- Zenbat etxaflero bota zenituzten Aingeru-guardara ?
- Zergatik apurtu plazako erlojua ?

Ahaztu zaidan gauza bat bakarrik. Denok dakigun bezala, **SANTAGEDA**ren **KOPLAK** abesten dira. Salbuespena izaten da etxe edo baserriren batetan aurreko egunetan hildakorik egon bada, Gure Aita erreztatzen dela, etxe horretakoak hala eskatu ezker. "ERREZATU !! Bai zera, ez dakigu eta. Además yo paso de eso." Ados, baina ohiturak ohitura dira, eta koplak ikasi ezker, zergatik ez Gure Aita ?

David Arrieta

1983. urtean kintto izandako eskoitzarra
("Qué viejo")

OHARRA: Ez duzue dena txarto egin. Esan didatenez aspaldiko urteetan ez bezala, fandango eta arin-arina denok

BEHARREZKO

TELEFONOAK

Eskoriatza

- Udaletxea 943-714407
- Udal Bulegoak 943-714532
- Udaltzaingoa 943-714407
- Euskalgia 943-792168
- Kultur-Etxea 943-714688
- Gizarte-Laguntzailea 943-714688
- Kiroletxea 943-715328
- Liburutegia 943-714688
- Luis Eceiza 943-714938
- Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
- Almen 943-714964
- Museo-Eskola 943-714688
- Ze Barri? 943-714077
- Talde Antimilitarista 943-715028
- Irakasle Eskola 943-714157
- Osakidetza 943-714452
- Telesko 943-714917
- Taxia 943-714059

Bestelakoak

- Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300
- Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 943-797199
- Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800
- Renfe (Zumarraga) 943-721515
- Renfe (Gasteiz) (945) 232030
- Pesa (Arrasate) 902 101 210
- Larrialdiak (Arrasate) 771043
- SOS Deiak 112

1999 ko GARISUMA

Martxoak 14
KATEKESIKO HAUR ETA
GURASOENTZAKO
GARIZUMAKO ELIZKIZUNA
goizeko 11etan, parrokiari

Martxoak 28
ERRAMU DOMEKA, Aste
Santuaren hasiera Erramuen
ospakizuna eta meza, eguerdiko
12etan, parrokiari.

Martxoak 30
PENITENTZI
SAKRAMENTUAREN
OSPAKIZUNA Elkarteko
ospakizuna: arratsaldeko 7etan,
parrokiari.

DIRULAGUNTZAK

- * Gipuzkoako Foru Aldundiak ingurugiro alorrean ikerketa bat egiteko dirulaguntza deitu du, zientzia kimikoan berriki lizentziatu direnentzat. Epea: martxoak 3.
- * Luzemetraiak burutzeko gidoiak egiteko dirulaguntzak. Epea: apirilak 2.
- * "Censolar" en eskutik eguzki-energia programatzaile eta instalatzaile ikastaroa egin ahal izateko dirulaguntza deialdia. Epea: apirilak 30.
- * Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak urteroko dirulaguntzak deitu ditu:
- * Artelekuko pintura eta eskultura zaharberrikutzako lantegian, zaharberrikuntza eta azterketa kimikoko praktikak egiteko bekak. Epea: martxoak 12.
- * Musika, dantza, antzerkia eta zaharberrikuntza arloetan espezializazio lanak burutzeko bekak: Epea: maiatzak 14.
- * Arte plastiko, ikus-entzunezko, argazkigintza, literatur sorkuntza eta musika konposaketa arloetako arte sorkuntza eta promozioa bultzatzeko laguntzak. Epea: maiatzak 14.

LANA

- * Bizkaiako Foru Aldundirako lanpostu batzu: sukaldaritzako laguntzaileak, administrariak, administrari laguntzaileak. Epea: martxoak 2.
- * Azkoiengo Udalak, kultur etxeko arduraduna behar du. Epea: martxoak 3.
- * Amurrioko Udalak hainbat postu bete nahi du: pertsonal koordinatzailea, liburuazaina, administraria, ekonomista, kirol koordinatzailea, lorazaina, gidaraia eta administrari laguntzailea. Epea: martxoak 4.
- * Oreretako Udalerako biola, kontrabaxu, fagot eta oboe irakasleak behar dira. Epea: EAOean argitaratu zain.

JAIOTZAK

HENAR VALOR HERNANDO
99.02.12 an

IÑAKI ALCAIDE RODRIGUEZ
99.02.21

HERIOTZAK
ROSA MARQUEZ NEGRO
99.02.16 an



KORRIKA 11

Badator KORRIKA!!!

Eskoriatzatik martxoaren 25ean pasatuko den korrika abiatzekotan da.

Korrika etorri bitartean **KORRIKA KULTURALA** antolatzen ari da Euskal Herri guztian zehar, eta Eskoriatzan Kafe Antzerkia izango dugu HIKA taldearen eskutik.

Hona hemen egitaraua:

MARTXOAREN 25an

Goizeko 5:10 an KORRIKA igaroko da eta eskoriatzarrok almenen testigua hartu eta Marulandaraino eramane beharko dugu.

Goizeko 5:30 tatik aurrera txokolatada egongo da kultur etxean korrika egindako guztiontzat.

Goizeko 11etan KORRIKA TXIKIA frontoitik irten eta San Pedrotik pasa eta gero, berriz kaletik igo eta Olazar aldetik zehar plazarantz joko da.

Goizeko 11:30 tan TXISTORRA JANA egongo da plazan.

Arratsaldean txotxongiloak egongo dira herriko enparantzan

Esan digutenez, martxoaren 25an goizalderarte iraun ahal izateko afari edo juergaren bat antolatzekotan ere badira. Dena den detaileak hurrengo asteetan jakingo ditugu.

Garai bateko Gorosarri dantza taldea

DANTZARI ONAK EDO TXARRAK ziren ez dakigu, baina orain dela urtetxo batzuk, gure herrian dantza talde handia behintzat bazegoela ikus dezakegu argazki honetan. 1976 urtekoa da, eta Angiozarren ateratakoa, Haurren Egunean. Gure bailarako beste hainbat talde bezela, Gorosarri Dantza Taldea ere bertan egon zen urte hartan, ordezkaritza polita bidalita gainera.


Ezkerretik eskumara eta goitik behera: Miren Abasolo, Joxe Ramon Zubizarreta, Gregorio Arrieta, Juan Luis Zubizarreta (eskerrak berari), Arrate Padilla, Julian Mari Ezeiza, Jon Errasti

Izaskun Romarate zabala, Mari Angeles Aranburuzabala, Aintzane Ortiz de Zarate, Maria Jesus Diaz de Gereñu, Jose Ignazio Garro, Jon Urzelai, Jose Mari Eraña

Eurne Abasolo, Elena Barandiaran, Olatz Billanueba, Maite Ortiz de Zarate, Iragartze Diaz de Gereñu, Arantxa Salegi, Irazkune Diaz de Gereñu, Nekane Urzelai, Enrique Iregi, David Arrieta

Mari Jose Azkarate, Pepi Karrikondo, Karmele Agirregabiria, Kontxi Agirregabiria, Jaime Pagalday, Amaia Garzia Salazar, Edorta Zubizarreta, Santi Garzia Salazar, Emeterio Gallastegi

Maria Ester Uribetxeberria, Miren Pagalday, Andoni Bengoa, Jon Ander Idigoras, Ritxar Altuna.




ALMEN
IKASTOLA



SAN PRANTZISKO XABIER
IKASTOLA



SAN VIATOR
IKASTOLA



Umezaintza
HAIR-ESKOLA



HEZIBIDEko Ikastolen Aposta Batzilergo eta Heziketa Zikloetan ere bai!



HEZIBIDE
Hezkuntza Taldea

Zatoz Informatzera!



Biteri Etorbidea, 15 behea
Tel: 943 79 88 75
20500 ARRASATE